ARROPA ZAHARRAK ETA BESTE EHUNAK BILDU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA ETA EDUKIONTZIAK GARBITU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

AURKIBIDEA

XEDEA

KONTRATUAREN IRAUPENA

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

EGIN BEHARREKO LANEN NORAINOKOA

LURRALDE ESPARRUA

ARROPA ZAHARRA GAIKA BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

- Bildu behar diren hondakinak.
- Azken 3 urteetan bildutako arroparen batez besteko kantitatea.
- Arropa zaharrak uzteko erabili behar den edukiontzia.
- Arropa biltzeko edukiontzien kopurua udalerrika eta edukiontzi gehigarriak jartzeko aukera.
- Arroparen bilketa eta garraioa.
- Eskatzen ez den beste hondakin batzuk.
- Bide publikoan jarritako edukiontziak husteko gutxieneko maiztasuna.
- Edukiontziak husteko egutegia eta ordutegia.

BILDUTAKO ARROPA ZAHARREN KUDEAKETA

ARROPA ZAHARRAK BILTZEKO EDUKIONTZIAK GARBITU ETA MANTENTZEKO LANAK

BESTE ANTZEKO LANAK

LANGILEAK

BALIABIDE MATERIALAK, IBILGAILUAK ETA EDUKIONTZIAK

ANTOLAKETA ETA KONTROL SISTEMAK

BESTE BATZUEK JASAN DITZAKETEN KALTEAK

ZERBITZUARI LOTUTAKO BESTE GAI BATZUK

ESKAINTZAN ZEHAZTU BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK TXOSTEN TEKNIKOA

ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

INFORMAZIO OSAGARRIA

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1. ERANSKINA - Kudeatzen den materialaren azken helmugaren ziurtagiria, inprimakia

1. XEDEA

Ondoko zerbitzua kontratatu eta ematea arautzen duten hainbat baldintza tekniko zerrendatzea da agiri honen xedea: herritarrek Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako bide publikoan jarritako edukiontzietan edo garbiguneetan uzten dituzten arropa zaharren eta bestelako ehunkien bilketa eta kudeaketa, baita edukiontzien mantentze lanak eta garbiketa ere.

Kontratu hau erreserbatutako kontratua da, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarrian ekonomia zirkular baterako ezarritakoaren arabera.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak urtebeteko (1) iraupena izango du, 2026eko urtarrilaren 16tik zenbatzen hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

3.1. Lizitazioaren gehieneko aurrekontua:

Kontratuaren lizitazio aurrekontua, bilketa zerbitzua urtebetez emateari dagokionez, 15.950,00 euro da (BEZa barne), eta lizitatzaileek prezio baxuagoa proposatu ahal izango dute eskaintzetan, zehaztutako zenbateko jakin bat adieraziz.

3.2. Kontratuaren balio zenbatetsia

Bilketa zerbitzua emateko kontratuaren balio zenbatetsia, zerbitzua urtebetez ematen bada eta beste urtebetez luzatzen bada (guztira 2 urte), 29.000,00 euro da (BEZ KANPO).

Kontratuaren prezio horrek barnean hartzen ditu kontratuak sor ditzakeen zerga eta gastu guztiak, BEZa izan ezik. Kontratu honen kasuan, prezioak ez dira berrikusiko.

4. EGIN BEHARREKO LANEN NORAINOKOA

Baldintza agiri hau oinarri harturik gauzatuko den kontratuak honako zerbitzu hauek ematea izango du xede:

1. Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako bide publikoan jarritako edukiontzietan zein garbiguneetan uzten dituzten arropa zaharraren gaikako bilketa.
2. Edukiontzietan bildutako gaiak garraiatzea eta instalazioetan deskargatzea, gaiak izaera eta egoeraren arabera sailkatzea eta begiratu, garbitu edo konpontzea, behar izanez gero, ondoren ehuna berreskuratu, berrerabili eta/edo birziklatzeko. Halaber, bildutako gaien artean egon daitezkeen eta erabili ezin diren hondakinak ere kudeatuko dira.

3. Arropa biltzeko edukiontziak garbitzea eta mantentze lan guztiak egitea, baita edukiontzi horiek dauden tokiaren inguruneak garbitzea ere.
4. Arropa biltzeko edukiontziak noizean behin garraiatzea eta tokiz aldatzea.

Edukiontzietan utzitako arropa guztiak eta eskatzen ez diren gainerako hondakinak zerbitzuaren kontratistaren jabetzakoak izango dira.

5. LURRALDE ESPARRUA

Baldintza agiri honetan zehaztutako zerbitzuak Debabarrenako Mankomunitatearen lurralde eremu osoan emango dira, hau da, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku eta Mallabiko udalerrietan.

Aipatutako lurralde eremua kontratu honen xede diren lan guztiei aplikatzen zaie, honako hauek izan ezik: hondakinak entregatzeko zentroetara garraiatzea, pisatze lanak edo osagai geografiko zehatzik ez duten beste alde batzuk, horiek azaldutako lurralde eremutik kanpo egin daitezke eta.

6. ARROPA ZAHARRA GAIKA BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

6.1. Bildu behar diren hondakinak

Arropa zaharrak, oinetakoak, osagarriak, etxeko arropa eta, oro har, ehunkiak, bai berriz erabiltzeko modukoak, bai narriatuta daudenez berriz erabili ezin direnak, zerbitzuaren erabiltzaileek Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea osatzen duten 8 udalerrietako bide publikoetan jarritako arropa biltzeko edukiontzi berezietan utzi dituztenak.

Adjudikaziodunak bildu eta kudeatuko ditu erabiltzaileek zerbitzu honetan uzten dituzten gai guztiak, haien egoera, hezetasun maila eta gainerako ezaugarriak edozein direla ere.

6.2. Azken 3 urteetan bildutako arroparen batez besteko kantitatea:

Azken 3 urteetan, arroparen 219.705,66 kilogramo/urte bildu da batez beste Debabarrenako Mankomunitatean.

Udalerriek 2022, 2023 eta 2024. urteetan bildu zuten kantitatea jarraian adierazten da.

Año	enero	febrero	marzo	abril	mayo	junio	julio	agosto	septiembre	octubre	noviembre	diciembre	Total
⊟ 2022	16.317,00	12.286,00	15.860,00	14.794,00	24.542,00	21.870,00	16.911,00	15.935,00	20.013,00	23.657,00	21.806,00	18.048,00	222.039,00
Deba	2.010,00	1.110,00	1.751,00	1.932,00	2.820,00	2.428,00	1.947,00	1.928,00	2.505,00	3.024,00	2.542,00	1.927,00	25.924,00
Eibar	4.940,00	3.701,00	5.112,00	4.523,00	7.712,00	6.744,00	5.242,00	4.689,00	6.312,00	7.521,00	7.050,00	5.834,00	69.380,00
Elgoibar	2.308,00	2.063,00	2.299,00	2.134,00	3.428,00	3.545,00	2.609,00	2.557,00	2.997,00	3.594,00	3.145,00	2.919,00	33.598,00
Ermua	3.702,00	2.670,00	3.310,00	3.045,00	6.141,00	4.942,00	3.583,00	3.429,00	4.541,00	4.911,00	4.792,00	4.019,00	49.085,00
Mallabia	240,00	120,00	290,00	270,00	240,00	480,00	300,00	270,00	230,00	340,00	270,00	270,00	3.320,00
Mendaro	761,00	495,00	518,00	570,00	939,00	756,00	652,00	407,00	560,00	645,00	694,00	505,00	7.502,00
Mutriku	1.733,00	1.232,00	1.501,00	1.547,00	2.306,00	2.108,00	1.763,00	1.775,00	1.893,00	2.552,00	2.285,00	1.679,00	22.374,00
Soraluze	623,00	895,00	1.079,00	773,00	956,00	867,00	815,00	880,00	975,00	1.070,00	1.028,00	895,00	10.856,00
⊟ 2023	15.867,00	12.334,00	13.728,00	17.990,00	21.728,00	23.434,00	19.494,00	15.464,00	17.815,00	21.473,00	22.753,00	16.641,00	218.721,00
Deba	2.222,00	1.266,00	1.464,00	2.126,00	2.282,00	2.719,00	2.233,00	1.632,00	2.088,00	2.570,00	2.991,00	1.950,00	25.543,00
Eibar	4.812,00	4.260,00	4.491,00	5.620,00	6.527,00	6.213,00	6.303,00	5.370,00	6.034,00	7.353,00	7.148,00	5.234,00	69.365,00
Elgoibar	2.230,00	1.848,00	2.382,00	2.917,00	3.870,00	3.793,00	2.748,00	1.886,00	2.418,00	2.710,00	3.201,00	2.604,00	32.607,00
Ermua	3.307,00	2.760,00	2.620,00	3.702,00	4.410,00	6.012,00	4.798,00	3.415,00	3.979,00	4.748,00	5.717,00	3.559,00	49.027,00
Mallabia	250,00	170,00	230,00	360,00	320,00	260,00	240,00	440,00	230,00	100,00	340,00	240,00	3.180,00
Mendaro	506,00	257,00	371,00	641,00	718,00	928,00	521,00	464,00	653,00	738,00	732,00	621,00	7.150,00
Mutriku	1.722,00	960,00	1.160,00	1.878,00	2.355,00	2.580,00	2.031,00	1.590,00	1.560,00	2.047,00	1.901,00	1.733,00	21.517,00
Soraluze	818,00	813,00	1.010,00	746,00	1.246,00	929,00	620,00	667,00	853,00	1.207,00	723,00	700,00	10.332,00
⊟ 2024	16.641,00	12.863,00	13.293,00	18.243,00	18.218,00	20.643,00	22.306,00	15.839,00	22.537,00	22.138,00	18.950,00	16.686,00	218.357,00
Deba	1.949,00	1.538,00	1.368,00	2.093,00	2.229,00	2.464,00	2.909,00	1.813,00	2.635,00	2.890,00	2.250,00	1.925,00	26.063,00
Eibar	5.234,00	4.635,00	4.556,00	5.953,00	5.956,00	6.134,00	6.312,00	4.253,00	7.029,00	7.221,00	5.932,00	5.335,00	68.550,00
Elgoibar	2.604,00	1.894,00	1.749,00	2.316,00	2.481,00	3.077,00	3.575,00	2.336,00	3.431,00	2.553,00	2.363,00	2.163,00	30.542,00
Ermua	3.559,00	2.809,00	3.117,00	4.284,00	4.167,00	5.141,00	5.313,00	3.627,00	5.305,00	5.039,00	4.612,00	3.921,00	50.894,00
Mallabia	240,00	220,00	140,00	160,00	260,00	260,00	400,00	380,00	180,00	360,00	300,00	280,00	3.180,00
Mendaro	621,00	365,00	445,00	573,00	544,00	680,00	777,00	519,00	662,00	630,00	1.241,00	450,00	7.507,00
Mutriku	1.734,00	1.084,00	1.363,00	1.922,00	1.720,00	1.958,00	2.119,00	1.728,00	2.406,00	2.334,00	1.647,00	1.717,00	21.732,00
Soraluze	700,00	318,00	555,00	942,00	861,00	929,00	901,00	1.183,00	889,00	1.111,00	605,00	895,00	9.889,00
Total	48.825,00	37.483,00	42.881,00	51.027,00	64.488,00	65.947,00	58.711,00	47.238,00	60.365,00	67.268,00	63.509,00	51.375,00	659.117,00

** Gutxi gorabeherako informazioa emateko datuak, ez lotesleak.*

Kontratua indarrean egon bitartean bildu beharreko arropa zaharren kantitateak gora edo behera egiten badu, biztanleen edo zerbitzua erabiltzen duten herritarren kopurua igo edo jaitsi delako, edo beste arrazoi batzuk direla medio, ez da kontratua aldatzeko arrazoia izango eta, hortaz, lizitatzaileek aurreikusi beharko dute. Adjudikazioa egin ondoren, arrazoi hori dela eta, kontratistak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

6.3. Arropa zaharrak uzteko erabili behar den edukiontzia:

Zerbitzuaren erabiltzaileek bide publikoan horretarako jarritako edukiontzietan utzi ahal izango dituzte arropa zaharrak, ordu mugarik gabe, asteko egun guztietan. Garbiguneen kasuan, instalazio horiek irekita dauden egun eta orduetan utziko da arropa.

Debabarrenako Mankomunitateak kontratistaren esku utziko du arropa zaharrak biltzeko edukiontzi bereziak (mankomunitatearen jabetza) erabiltzeko ardura, eta kontratista arduratuko da edukiontziak husteaz, garbitzeaz, tokiz aldatzeaz, baita mantentze lanak egiteaz ere.

Edukiontzia berariaz diseinatuta dago erabiltzaileak arropak eta ehun materiala bertan utz ditzan, gai horiek edukiontziaren ahoan sartuz.

Arropa biltzeko edukiontzi osoa metalezkoa da, karratu formakoa, eta gutxi gorabehera 3.000 litroko edukiera duena. Aurreko aldean aho bat du –arropa sartzeko–, eta giltzaz ixten den ate bat, barruan utzitako arropa ateratzeko; ate horrek beti itxita egon beharko du, edukiontzira eta barruan dagoen arropa eta ehun gaietara baimenik gabe iristea saihesteko.


ARROPA
943 344 333

Udalerri bakoitzeko arropa-edukiontzien kopurua

Hurrengo koadroan, edukiontziak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrien arabera nola banatzen diren zehazten da, bai eta edukiontziak erreferentzia gisa zein helbidetan dauden ere.

MUNICIPIO	Punto	SITUACIÓN	SOBRENOMBRE
Mallabia	1001	Mikel Zarate, 8	
Ermua	2012	San Ignacio, 8	Bar Paco Avda. Bizkaia, 8
Ermua	2018	VI Centenerio de la Villa, 13	
Ermua	2028	Okinzuri,1	Okin Zuri - Cantera
Ermua	2031	Ongarai, 2	
Ermua	2044	San Pelayo, 22	Kiosko
Ermua	2063	Avda. Gipuzkoa, 16	
Ermua	2080	Abeletxe, 24	ambulatorio
Eibar	3015	Tiburcio Anitua, 3	Taller mecánico
Eibar	3020	Tiburcio Anitua, 23-25	Torres
Eibar	3037	San Kristobal, 12. trasera	
Eibar	3038	Romualdo Galdós, 16 ac	Iglesia
Eibar	3054	Unzaga, 7	j.gisasola
Eibar	3072	Bittor Sarasketa, 2	Euskotren
Eibar	3092	Bidebarrieta, 4	Katu Kale
Eibar	3098	Carmen, 11	
Eibar	3101	Barrena, 22	Mutua
Eibar	3110	Julián Etxeberria, 1	Telefónica
Eibar	3165	Azitain	Garbigune
Soraluze	4005	Baltegieta, 17	Semáforo
Soraluze	4011	Avda. Gipuzkoa, 24	
Soraluze	4021	Avda. Ezozia, 8	Rotonda
Elgoibar	5003	Trenbide, 3	San Ignacio
Elgoibar	5022	Plaza Aita Agirre, 34	parada taxi
Elgoibar	5034	Alameda Balneario	
Elgoibar	5052	Uparitzaga, 4	
Elgoibar	5056	Pol. Arriaga	Garbigune
Mendaro	6003	Avda. Kilimón, 7	Ambulatorio
Deba	7006	Agirretxe kalea	Cruce Astillero, 8
Deba	7008	Latzurregi	Cruce Agirretxe (arriba)
Deba	7019	Hondartza kalea, 3-4	Paseo Cubierto
Deba	7109	Itziar. Itziar auzoa, 2	Hotel Kanala
Mutriku	8004	Bajado Puerto, 3	
Mutriku	8020	José Antonio Eceiza, 5	Rotonda Kai
Mutriku	8060	Domingo Ibaibarriaga, 2	

Laburpena udalerrika

Udalerria	Edukiontziak
Mallabia	1
Ermua	7
Eibar	11
Soraluze	3
Elgoibar	5
Mendaro	1
Deba	4
Mutriku	3
GUZTIRA	**35**

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek hala eskatuta, enpresa adjudikaziodunak edukiontziak agindutako guneetara mugitu beharko ditu, edukiontzi baten kokapena dena delako arrazoiarengatik aldatu behar bada. Lekualdaketa gehienez ere berrogeita zortzi (48) ordutan egingo da, premiazko egoerak izan ezik, halakoetan gehieneko epea ordu batekoa (1) izango da eta.

Mankomunitateak hala agintzen badu, enpresa adjudikaziodunak torlojuz lurrera lotuko ditu edukiontziak, nahi gabe mugi ez daitezen.

6.4. Arroparen bilketa eta garraioa:

Mankomunitateak hiru edukiontzi berri ere izan ditzake aurreko udalerrietan. Lizitatzaileek egoera hori aurreikusi beharko dute beren proposamenak idazterakoan, eta proposamenak jaso eta tratatzeak ez du kontraprestazio ekonomiko gehigarririk ekarriko.

6.5. Eskatzen ez den beste hondakin batzuk:

Kontratistaren bilketako langileek hustu beharreko arropa-edukiontziaren inguruan aparkatuko dute ibilgailua, barrura sartzeko arropa-edukiontziaren atea irekiko dute, edukia aterako dute, hustu behar den unean edukiontzi bakoitzak izan dezakeen betetze-maila edozein dela ere, eta jarraian edukiontzia giltzaz itxiko dute.

Arropa biltzeko, ekipamendu egokia duen ibilgailua erabiliko da, nahikoa karga bolumen eta errotuluak dituena; ibilgailua nahitaez zerbitzua ematen duen enpresa kontratistaren izenean egongo da eta kontratistaren langileek erabiliko dute une oro.

Kontratista **hondakin ez-arriskutsuen garraiolari gisa** inskribatuta egongo da **hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroan**.

Lizitatzaileek bilketarako erabiliko dituzten ibilgailuak deskribatuko dituzte eskaintzetan, baita materialak bildu, bilketarako, garraiatzeko eta instalazioan deskargatzeko ibilgailuan kargatu eta, hala badagokio, sailkatu eta trinkotzeko proposatzen den prozedura ere.

Arropa biltzeko edukiontziak husteko deskribatutako operazioarekin koherentziaz, bilketarako ibilgailuak nahikoa edukiera izan beharko du eta aipatutako lana betetzeko beharrezkoak diren osagarri teknikoak edukiko ditu, ahalik eta segurtasun maila handiena bermatzeko, kargak mugitzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betez.

Horretarako, kontuan izan beharko dituzte udalerrien azalera, edukiontziak husteko gutxieneko maiztasunak, zenbat arropa zahar sortu eta utz daitekeen. Halaber, kontuan izango dute zerbitzuak ezin dituela eragotzi asteko azokak, errepideko zirkulazioa, ezta herritarren jarduera ere; eta ez da horrelakoen ondorioz galarazita egongo.

Bilketarako ibilgailuak bilketa lanak arintzeko behar-beharrezkoak diren geraldiak eta maniobrak baino ez ditu egingo, eta, une oro, saihestuko du pertsonen eta ibilgailuen ohiko zirkulazioa oztopatzea, segurtasun neurri egokiak hartuz; halaber, Trafikoaren Legea beteko du une oro, arau-haustetzat edo arriskubidetzat jo daitezkeen maniobrak saihestuz.

Gainera, kontratistak zerbitzua betetzean kontu handiz ibili beharko du, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Edukiontziak mugitu bitartean bide publikora erori diren hondakinak berehala bilduko dituzte bilketarako lantaldea osatzen duten operadoreek; beste modu batera ere bildu ahal izango dira, kale garbiketaz arduratzen diren udal zerbitzuak ez inplikatzeko.

Bilketarako ibilgailuak ustekabean likido edo lixibiaturen bat isurtzen badu, adjudikaziodunaren betebeharra izango da eragindako gunea erabat garbitzea.

Arropa biltzeko lanak egin bitartean kontratistak edukiontzietatik kanpo dauden arropak edo ehunkiak ikusten baditu, horiek edukiontzitik ateratako arropekin batera bildu eta kudeatu beharko ditu, haien forma, izaera eta egoera edozein dela ere. Gainerako etxeko hondakin guztiak ere bildu egingo dira, dagokien eta hurbilen dagoen edukiontzian uzteko. Era berean, bilketa guztietan, adjudikaziodunak edukiontziaren ahoan edo tapa baskulagarrian trabatuta gera daitezkeen elementu guztiak kenduko ditu eta edukiontzia erabiltzeko prest utziko du.

Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek kontratistari erabiltzaileek arropa edukiontzietatik kanpo utzi dutela jakinarazten badiote, hark gehienez ere 24 ordu izango du –abisua jasotzen duenetik zenbatzen hasita– arropa hori biltzeko; hala ere, kontratistak epe laburragoa proposa dezake, bere eskaintza ekonomikoarekin batera.

Kontratistak bildutako gaien artean aurkitzen dituen gauza baliotsuak Mankomunitatearen eskura jarriko ditu, gero, jabetza egiaztatzen duten pertsonei itzultzeko.

Bildutako gaien garraioak horrelakoak errepide bidez garraiatzeari buruzko araudia –indarrean dagoena– bete behar du.

Bildutako arroparen kantitatea pisatu beharko da. Pisaketa horiek araudiarekin bat kalibratutako baskuletan egingo dira, ahal bada, beti baskula bera erabiliz. Lizitatzaileek pisua neurtzeko erabili nahi duten (dituzten) baskula(k) zehaztuko dituzte eskaintzetan. Garbiguneetako baskulak –Mankomunitatearen jabetzakoak– erabili ahal izango dira horretarako, Mankomunitatearen zerbitzu teknikoen jarraibideak betez.

Mankomunitateak, beharrezkotzat jotzen duen guztietan, neurtutako pisua egiaztatzeko eskubidea izango du.

Bildutako gaien deskarga horiek tratatu eta sailkatzeko instalazioetan egingo da, eta adjudikaziodunak eskaintzan aipatu dituen instalazioak izango dira. Debekatuta dago gaiak beste toki batean deskargatzea, Mankomunitateak esanbidez baimendu ez badu.

Bilketan diharduten langileek telefono mugikor bat edo zuzenean kontaktatzeko beste bitarteko bat izan beharko dute, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek harremanetan jartzeko aukera une oro izan dezaten, lantaldea kontratu honetan adierazitako lanak egiten ari den bitartean.

Edukiontziek eta barruan dagoenak besteei eta ingurumenari eragin diezazkieketen kalteen eta kontratatutako zerbitzuak ematean eragindako kalteen erantzule adjudikazioduna izango da.

6.6. Eskatzen ez den beste hondakin batzuk:

Kontratistaren ardura izango da, halaber, hemen aipatzen ez den baina arropa biltzeko edukiontziaren barruan edo inguruan ager daitekeen edozein hondakin kendu eta bideratzea; gestioa erkidegoak hondakinen kudeaketarako ezarri duen hierarkiari jarraikiz egingo du kontratistak.

6.7. Edukiontziak husteko gutxieneko maiztasuna.

Arropa biltzeko edukiontzi bakoitza astean bitan hustuko da gutxienez. Edukiontziak husteko gutxieneko maiztasunak eranskinean jasota daude.

Edukiontziei esleitutako gutxieneko maiztasuna edozein dela ere, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak edukiontziak husteko maiztasuna egokitu beharko du, hau da, beharrezkoa bada, Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoek kasuan-kasuan emango dizkioten jarraibideen arabera areagotu beharko du maiztasuna, edukiontzietan arropa biltzeko tokia beti egon dadin, adjudikazio prezioa igo gabe.

Zerbitzua eta segurtasuna direla eta, edukiontziak husteko gutxieneko maiztasuna areagotu beharko da edukiontzietan utzitako arroparen mailak edukieraren % 75 (3/4) gainditzen ez duela une oro bermatzeko. Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoek egiaztatzen badute husteko maiztasuna ez dela nahikoa gutxieneko erabilgarritasuna (edukiontziak betetzeko bolumenaren % 25, hau da, (1/4) era iraunkorrean bermatzeko, Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoek hala eskatuta, kontratistak

areagotu beharko du edukiontziak husteko maiztasuna, eskatzen den erabilgarritasuna bermatze aldera.

Edukiontzi batek edukieraren % 75 (3/4) gainditzen badu, kontratistak gehienez ere 24 ordutan hustu beharko du, Mankomunitateak abisua eman duen eguna eta ordua edozein dela ere.

Hiru hilabetean behin, Mankomunitateak berrikusi egingo du onartutako bilketa egutegia, eta, beharrezkoa izanez gero, aldatu egingo du. Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek onartu beharko dute bilketarako ibilbideetan egin nahi den edozein aldaketa.

Kontratua indarrean egon bitartean bildu beharreko arropa zaharren kantitateak gora edo behera egiten badu, zerbitzua erabiltzen duten herritarren kopurua igo edo jaitsi delako, edo beste arrazoi batzuk direla medio, ez da kontratua aldatzeko arrazoia izango eta, hortaz, lizitatzaileek aurreikusi beharko dute bere proposamenak egiteko orduan. Adjudikazioa egin ondoren, arrazoi hori dela eta, kontratistak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

6.8. Edukiontziak husteko egutegia eta ordutegia:

Lizitatzaileek eskaintzetan bilketa egiteko egunak eta ordutegi egokienak proposatuko dituzte, ezarritako gutxieneko maiztasuna, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien berezitasunak eta proposatutako bilketa sistema kontuan hartuta, Debabarrenako Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoek proposamen horiek aldatzeko duten ahalmena eta kontratistak aldaketa horiek onartzeko derrigortasuna galarazi gabe.

Bilketa egiteko ezarri den eguna jaieguna bada, aurreko edo ondorengo egunean egingo da bilketa, Debabarrenako Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoak kasuan-kasuan erabakiko duenarekin bat.

<u>Arropa garbiguneetan biltzea:</u>

Arropa zaharrak biltzeko zerbitzuak Debabarrenako Mankomunitateko garbiguneetan jarritako edukiontzietan utzitako arropak eta ehunak ere bilduko ditu, bide publikoan jarritako edukiontzietan utzitakoez gain.

Zerbitzuak garbigune horien egutegira eta ordutegira egokitu beharko ditu bilketa orduak, egutegi eta ordutegi horiek honako hauek direla kontuan hartuta:

ZERBITZU-ORDUTEGIA - HORARIO SERVICIO

Astelehen / Lunes	16:00' --- 18:20
Asteartetik ostiralera / De martes a viernes	9:00' --- 13:00 / 16:00 ---18:20
Larunbata / Sábados	9:00' --- 13:00

Igande eta jaiegunetan itxita

Lizitatzaileek bilketa egiteko egunak eta ordutegi egokienak –Mankomunitateko garbiguneekin eta proposatutako bilketa sistemarekin bat datozenak– proposatuko dituzte eskaintzetan, Debabarrenako Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoek proposamen horiek aldatzeko duten ahalmena eta kontratistak aldaketa horiek onartzeko derrigortasuna galarazi gabe.

7. BILDUTAKO ARROPA ZAHARREN KUDEAKETA

Bildutako gaien sailkatu, egiaztatu, egokitu eta, oro har, kudeatzeko lanak adjudikaziodunak bere eskaintzan aipatu dituen instalazioetan egingo dira, hau da, hondakinen tratamendua eta sailkapena egiteko instalazioetan.

Planta edo planta horiek hondakin ez-arriskutsuen tratamendu-kudeatzailearen baimena izango dute.

Bildutako gai guztia adjudikaziodunarena izango da, eta hark hartuko ditu bere gain hondakin horiek berrerabili, berreskuratu eta birziklatzeko prozesuan sor daitezkeen betebehar, eskubide eta erantzukizunak.

Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legeak ezartzen duen lehentasun-hurrenkeraren arabera, esleipenduna arduratuko da bildu dituen material guztiak tratamendu egoki batera bideratzeaz, ingurumen aldetik modu egokian. Prebentzioa kontratu honen helburutik kanpo dago. Esleipendunaren lehentasuna izango da bildutako materialak berrerabiltzera bideratzea, eta, horretarako, berrerabiltzeko prestaketa-lanak egin beharko ditu. Horien kudeaketak honako lehentasun-ordena hau errespetatu beharko du:

1. Arropa eta osagarriak berrerabiltzea; adibidez, bigarren eskuko dendetan eta beste batzuetan saltzea.
2. Materialak birziklatzea; adibidez, garbitzeko trapuak, betetzeko materiala eta abarrak fabrikatzeko.
3. Balorizazio energetikoa.
4. Aprobetxatu ezin den errefusa zabortegian deuseztatzea. Halabeharrez, azken aukera izan behar du, aurreko guztiak baztertu eta gero.

Horretarako, adjudikaziodunak bildutako gaiak begiratu eta sailkatu egingo ditu, mota eta egoeraren arabera; behar izanez gero, garbitu, higienizatu, konpondu, egokitu, etiketatu eta antzekoak egingo ditu, eta gaiak saltokien bitartez banatuko ditu, doan edo beste bide batzuk erabiliz entregatuko ditu, betiere aplikatu behar diren lege xedapenak betez, gauzak aldatu gabe berrerabili ahal izateko.

Berrerabil daitezkeen hondakin motak honako hauek dira, besteak beste:

- arropa zaharrak
- etxeko arropa
- oinetakoak
- osagarriak

Adjudikaziodunak bildutako gaien artean egon daitezkeen eta erabili ezin diren hondakin gehienak birziklatzera bideratuko ditu, hala nola:

- berrerabili ezin daitezkeen ehun gaiak (ehunak eta materialak aprobetxatzera bideratuko dira)
- papera eta kartoia, plastikoa eta birziklatzeko moduko beste hondakin batzuk, ager daitezkeenak.

Birziklatu ezin diren hondakinen kasuan, balorizazio energetikoa egin ahal izango da. Adjudikaziodunari esanbidez debekatuko zaio bildutako materialak tratatu gabe botatzea. Tratatu gabe honako hauek bakarrik bota daitezke: berrerabili eta birziklatu ezin diren materialak eta balorazio energetikorik egiteko aukerarik ez dutenak, aldez aurreko gestioak burutu ondoren.

Adjudikaziodunak bildutako materialen kudeaketaren trazabilitatea ziurtatu beharko du.

Eskaintzetan aurreikusitako kudeaketaren deskribapen zehatza agertu beharko da, berrerabili, birziklatu, balorizazioa egin eta botatzera bideratu nahi duten masen balantzea eta gutxi gorabeherako portzentajeak adierazita.

Kontratistak bildutako eta berreskuratutako materialak, bitartean errefus gisa sor daitezkeen hondakin balorizaezinak barne, behar bezala bideratzeko ardura hartuko du.

Arropa eta objektu txikiak berreskuratu, berrerabili eta birziklatzeko prozesuan sor daitezken betebehar eta erantzukizun guztiak adjudikaziodunaren kargura izango dira.

8. ARROPA ZAHARRAK BILTZEKO EDUKIONTZIAK GARBITU ETA MANTENTZEKO LANAK

Garbiketa

Edukiontzi guztien egoera higieniko-sanitario ezin hobea eta itxura estetiko ona bermatzeko, kontratistaren betebeharra izango da zerbitzuari lotutako baliabide material guzti-guztiak osorik garbitu eta desinfektatzea, une oro itxura ona eta erabilgarritasun maila egokia izan dezaten.

Edukiontziak garbitzeko ohiko lanak *in situ* egingo dira, hau da, edukiontziak dauden tokian bertan. Horretarako, kontratistak neurri egokiak hartuko ditu, garbiketa lanen ondorioz ondasunei edo pertsonei eragozpenak sortzea saihesteko; lan horiek barnean hartzen dute garbiketarako ibilgailua edukiontziaren alboan gelditzea.

Edukiontziari dagokion ekarpen gunea honako hau izango da: edukiontziaren inguruko bi (2) metroko lurzatia. Garbiketa amaitu ondoren, edukiontziaren eta ekarpen guneko kanpoko azalerak ez du zikintasunaren arrastorik izango.

Edukiontziak, baita dagozkien ekarpen guneak ere, gutxienez hiru (3) hilabetean behin garbituko dira osorik (barruan zein kanpotik) eta egoera ezin hobean utziko dira, garbitasun, higiene eta funtzionamenduari dagokionez; ohiko zikinkeriaz gain, pintadak, grafitiak, pegatinak, itsasgarriak, kartelak eta edukiontzietara itsatsita egon daitezkeen bestelako elementu guztiak kenduko dira. Garbiketa lanei dagokienez, kontratistak gutxieneko maiztasun handiagoa proposatu ahal izango du bere eskaintza ekonomikoan.

Gutxieneko maiztasuna edozein dela ere, unean-unean, Mankomunitateak edo kontratistaren ikuskaritzak hala eskatzen badu, kontratistak garbitu beharko ditu garbiketa batetik hurrengora igarotzen den denbora tartean nabarmen zikindu diren edukiontziak, adjudikazio prezioa igo gabe.

Garbiketa lanak egunez egingo dira, inoiz ez 08:00ak baino lehen, inguruko auzokoei eragozpen gehiago ez sortzeko.

Kontratuaren azken hilabetean, zerbitzuan erabiltzen diren edukiontzien azken garbiketa egingo du adjudikaziodunak. Garbiketa hori egin ondoren, Mankomunitateak edukiontzien egoera ikuskatu ahal izango du, egon daitezkeen akatsak detektatzeko, eta adjudikaziodunak konpondu beharko ditu akats horiek.

Mantentze lanak

Era berean, adjudikaziodunaren betebeharra izango da egin beharreko mantentze lan guztiak –prebentziozkoak zein zuzentzaileak– antolatu eta gauzatzea, edukiontzi guztiak erabilera egoera onenean mantentzeko.

Adjudikaziodunak ordainduko ditu honako kostu hauek: lan indarra, materialak, piezak, kanpoko lanen kontratazioa, baita edukiontzien mantentze osoarekin lotutako beste edozein kostu ere. Baldintza agiri honek ezartzen dituen mantentze lanek edo konponketek ez diote kostu gehigarririk ekarriko Mankomunitateari.

Programatu gabeko mantentze lanen kasuan, halakoak egiteko premia bat-batean sortzen bada, kontratistak gehienez ere 24 ordutan konpondu beharko du antzemandako anomalia.

Kontratistak gutxienez ibilgailu bat bideratuko du edukiontzien mantentze lanetarako eta kontserbaziorako; operadore gaitu batek gidatuko du ibilgailua, eta erreminta, tresna eta ordezko piezak izango ditu, matxurak prebenitu edo zuzentzeko mantentze lan guztiak “in situ” egiteko.

Edukiontziaren narriadura maila (pintadak, grafitiak, mailatuak, deformazioak, desdoikuntzak, arrastoak, pintura edo materiala askatu den guneak, nahi gabe edo nahita erretako tokiak eta abar) hain bada handia non, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoaren iritziz, zuzenketa estetikoki onartezina den, adjudikaziodunak, aipatu Zerbitzu Teknikoak errekerimendua eginda, edukiontzia karrozeria lantegi espezializatuan konpondu beharko du eta, beharrezkoa bada, edukiontzia oso-osorik margotuko du labean margotzeko kabina batean edo edukiontzi berri bat jarriko du horren ordez.

Adjudikaziodunak, kontratua indarrean dagoen bitartean, berriro jarri beharko ditu bere tokitik desagertu diren edo oso narriatuta dauden edukiontziak, egoera horren arrazoia edozein dela ere, bandalismoa, lapurreta, erabilera desegokia, kolpeak (ibilgailuek talka egin dietelako, zuhaitzak eta adarrak erori direlako) edo antzeko ekintzen ondorioz erre edo hondatu badira.

9. BESTE ANTZEKO LANAK

Halaber, adjudikaziodunaren betebeharra izango da honako lan hauek egitea:

- Edukiontziak kokapen berrietan jartzea.
- Instalatuta dauden edukiontziak tokiz aldatzea, edozein arrazoi justifikatu dela medio (zerbitzuak eragindako beharra, obrak, errepideko zirkulazioaren aldaketak, ikuspen eza ibilgailuentzat edo oinezkoentzat, gizarte, kultura eta kirol ekintzak eta abar).
- Edukiontziak kentzea eta haien ordez beste batzuk jartzea, guztiz erabilezin bihurtzen badira edota beste arrazoi batzuengatik.
- Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoak agindutako antzeko zereginak.

Adjudikaziodunak bete beharko ditu Debabarrenako Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoaren aginduak, zerbitzu honekin zerikusia badute, Mankomunitateak emandako epean.

10. LANGILEAK

Kontratistak, une oro, kontratuaren xedea den zerbitzua eraginkortasunez emateko beharrezkoak diren giza baliabideak izango ditu, Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintza ekonomikoan deskribatutako gidalerro eta zehaztapenekin bat.

Zerbitzuburu eta arduradun goren modura kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen pertsona azalduko da. Aipatu pertsonak zuzeneko harremana izango du Mankomunitatearekin.

Gaixotasun edo istripuarengatik bajak, baimenak, sindikatu zereginak, oporrak bezalako egoeretan eta behar bezala justifikatuta dauden bestelako gorabeheretan kontratistak zerbitzua betetzea bermatu beharko du. Gauza bera gertatuko da ustekabeko baja eta lanera ez agertzearen kasuetan. kontratistak berehala estaliko ditu langileen absentziak edo bajak.

Aurrekoa kontuan hartuta, lizitatzaileek beren eskaintzetan kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez gauzatzeko langileen aurreikuspen proposamena egingo dute eta langileen ordezkapen plana gehituko diote.

Langile guztiak behar bezala identifikatuak egongo dira, zerbitzuen segurtasunari begira. Ildo horri eutsiz, identifikazio sistema eraginkorra proposatuko da.

Kontratistaren betebeharra da lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege xedapenak betetzea, baita kontratuari aplikatu behar zaizkion gainerako arauak ere, eta, bete ezean, Mankomunitatea salbuetsita egongo da ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztietatik.

Kontratistak ondoko arloei lotutako lan eskakizun guztiak bete beharko ditu: Gizarte Segurantza, lan istripuak eta PFEZ.

Debabarrenako Mankomunitateak kontratuaren indarraldian eta hori amaitutakoan adjudikaziodunaren langileekin ez du lege edo lan harremanik ala bestelakorik izango eta lehiaketa

dela eta, sor daitezkeen betebehar, kalte ordain eta erantzukizun guztiak adjudikaziodunaren kargura izango dira.

Langileei dagokienez, lizitatzaileek honako alde hauek zehaztuko dituzte eskaintzetan:

- prestakuntza maila,
- esleitutako zereginak,
- lanean emango duten denbora,
- ordainsari maila,
- kontratazio mota eta kontratuaren iraupena,
- urteko unitateko kostua eta denbora unitatearen araberako kostua.

11. BALIABIDE MATERIALAK, IBILGAILUAK ETA EDUKIONTZIAK

Adjudikaziodunak zerbitzua zuzen emateko behar diren baliabide material guztiak jarri beharko ditu.

Zerbitzura bideratutako baliabide materialek une oro bermatuko dute zerbitzu hori ematea, lan plana garaiz burutzeko eta sor daitezkeen ustekabeko egoerak konpontzeko tarte nahikoa utziz. Zerbitzuaren eskakizunak aintzat hartuta material egokiena erabiliko da.

Kontratari lotutako baliabide material guztiak Debabarrenako Mankomunitatearen zerbitzura jarriko dira lanaldi partzialean, hau da, zerbitzua ematen den uneetan bakarrik.

Lizitatzaileek zerbitzuetan erabiltzeko askotariko materialak aipatuko dituzte eskaintzetan, eta argi eta garbi azalduko dute zein den zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den materiala eta erreserba materiala; azken hori normalean ez da zerbitzuan erabiltzen, baina matxuraren bat gertatuz gero zerbitzuko materiala ordeztu edo zerbitzua unean-unean indartu behar denean erabiliko da.

Lizitatzaileek deskribatuko dute zerbitzura bideratuko den material osoa, eta material hori ahalik eta hoberen ezagutarazteko behar diren datu guzti-guztiak emango dituzte. Batez ere, ibilgailuen gas isurpenak eta zaratak murrizteko neurriak hartuko dira kontuan.

Erabiliko den material higikorrari dagokionez, zerbitzuaren eskakizunak aintzat hartuta egokiena den materiala erabiliko da.

Bide publikoan lan egiten duten ibilgailu guztiak arazorik gabe ikusi beharko dira. Derrigorrezko segurtasun sistemak izango dituzte, eta antzemateko eta oinezkoentzako zein beste ibilgailuentzako arriskuak saihesteko beharrezkoak diren seinaleztapen sistemak edukiko dituzte.

Material higikor guztia, berariazko makinak eta tresnak zehatz-mehatz deskribatu beharko dituzte lizitatzaileek; ezaugarri teknikoak, ekipamenduak, antzinatasuna eta abar adieraziko dituzte, eta elementu horiek ahalik eta ondoen ezagutzeko beharrezkotzat jotzen dituzten plano, krokis, eskema, argazki eta datu guztiak emango dituzte.

Debabarrenako Mankomunitateak kontratistaren esku utziko du arropa zaharrak biltzeko edukiontzi berezien (mankomunitatearen jabetza) erabilera, eta kontratista arduratuko da edukiontziak husteaz, garbitzeaz, tokiz aldatzeaz, baita mantentze lanak egiteaz ere.

Kontratuaren hasieran, kontratistak edukiontzien irudia zaharberrituko du: grafitiak eta kartelak kendu eta berriro margotuko ditu.

Edukiontziak bide publikoan egotearen, herritarrek erabiltzearen eta bilketa, garbiketa, tokiz aldatzea eta mantentze lanak direla eta sor daitezkeen erantzukizun guztiak kontratistaren kontura izango dira.

Kontratistak eskaintzan aintzat hartu beharko ditu Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak lagako dizkion edukiontziak mantendu eta kontserbatzeko kostuak.

Kontratua adjudikatuta, kontratistak ezin izango dio Administrazioari eskatu zerbitzua emateko xedez laga zaizkion edukiontziak aldatzeko edo berritzeko. Hala ere, kontratistak bere kontura egin ahal izango ditu komenigarritzat jotzen dituen aldaketa eta hobekuntza teknikoak, Debabarrenako Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoen baimena lortu ondoren.

Kontratistak laga zaizkion edukiontzi guztiak kontserbazio egoera onean eta garbi mantendu behar ditu. Halaber, kontratistaren betebeharra izango da garbiketa lanak eta matxurak prebenitu eta konpontzeko mantentze lanak antolatu eta burutzea baldintza agiri honetan azaldutako moduan, edukiontziak beti erabilgarritasun, segurtasun eta osasungarritasun baldintza onenetan egon daitezen.

Egindako lanak dagozkion txostenetan adieraziko dira, eta horiek Debabarrenako Mankomunitateari entregatuko zaizkio, eskatzen den maiztasunarekin.

Hala eta guztiz ere, ekipoen kontserbazio egoera eta funtzionamendua aldizka ikuskatuko dute Debabarrenako Mankomunitateko langileek, bere laguntzaileek eta eginkizun horiek eskuordetu ondoren, beste aditu batzuek, mantentze lanen eraginkortasuna egiaztatzeko. Hala, kontratistak ikuskaritza lanak egitea erraztu beharko du, beharrezko datuak emango ditu eta eskatzen zaizkion kontrol probak egingo ditu. Ikuskaritza egin ostean mantentze lanak ez direla egiten edo urriak direla ondorioztatzen bada, adjudikaziodunaren kargura gauzatzea edo zuzentzea agin dezake.

Kontratua bukatu ondoren, kontratistak laga zitzaizkion edukiontziak Debabarrenako Mankomunitateari itzuli beharko dizkio kontratuaren hasieran zeuden bezalako egoeran, edukiontzien ohiko erabilerak eta igarotako denborak eragin dezakeen narriadura kontuan hartuta. Horri buruzko akta sortuko da, kontratua likidatzeko nahitaezko baldintza betetze aldera, eta bertan zehaztuko dira edukiontziak, baita beren kontserbazio eta mantentze egoera ere.

Kontratistak edukiontziak behar bezala mantendu eta kontserbatzeko betebeharra betetzen duela bermatzeko, kontratua edo bere luzapenak bukatu baino hiru (3) hilabete lehenago, Debabarrenako Mankomunitateak egokitzat jotzen duen azterketa teknikoa egingo da, eta, azken hiru hilabeteetan, kontratistaren kontura egingo ditu ikusitako kalteak zuzentzeko beharrezkoak izan daitezkeen konponketa eta aldaketa guztiak, kalte horiek kontuz erabiltzearen eta ondo zaintzearen ondorioz sortu ohi den narriadura gainditzen badute.

12. ANTOLAKETA ETA KONTROL SISTEMAK

12.1. Mankomunitateari jakinaraztea

Proposatutako antolaketaren barruan, eskaintzaileek gailu arinak aurrez ikusi beharko dituzte, garaiz Debabarrenako Mankomunitateak behar dituen datu guztiak eskuratzeko. Horiekin, batetik, egindako lanak justifikatuko dituzte eta, bestetik, kontratatutako zerbitzu publikoaren gainean. Gailuak eta sistemak, informatikoak eta beste izaera batzuetakoak, Mankomunitateak dituenekin bateragarriak izango dira.

Zerbitzuetatik ateratako informazioa Mankomunitatearen eskura jarriko da une guztietan. Horretarako, adjudikaziodunak honako erregistro hauek izango ditu:

a) Bide publikoan dauden edukiontziei dagokienez, bilketa erregistroa: bilketaren eguna eta ordua, bilketa egin den edukiontzien identifikazioa, ibilbideetan egindako kilometroak, edukiontzi bakoitzetik ateratako arropa zaharren kantitatea, betetze maila, gorabeherak eta abar.
   Horretarako, eguneko bilketa agiriak beteko dira, gutxienez honako alde hauek zehazten dituztenak:
   1. Lanaldi bakoitzean hustu diren edukiontzien kopurua eta kokapena;
   2. Bilketaren eguna;
   3. Lanak zer ordutan hasi diren eta noiz bukatu diren;
   4. Egindako kilometroak;
   5. Edukiontzi bakoitzaren betetze maila;
   6. Ibilbide bakoitzean jasotako kantitate osoa (pisua);
   7. Lanaldian gertatutako gorabeherak;
   8. Zerbitzua hobetzeko oharrak eta iradokizunak.

   Eguneroko lan agiria hurrengo goizean Debabarrenako Mankomunitatera bidaliko da modu digitalean, pisaketaren tiketekin batera.
b) Garbiguneetan egindako bilketen erregistroa: bilketaren eguna eta ordua, garbigunearen izena, arropa zaharren kantitatea, gorabeherak (hala nola pintadak, grafitiak, marrak, hautsitako piezak, funtzionamendu txarra) eta abar.
c) Instalazioetan egindako pisaketen eta deskargen erregistroa: ibilgailuaren matrikula, tarteko pisaketak (baskularen identifikazioa, eguna eta ordua, pisu gordina eta garbia), instalazioan deskargatzea (eguna eta ordua, pisu gordina eta garbia).
d) Edukiontziak zein ekarpen guneak garbitu eta mantentzeko lanen erregistroa: eguna eta ordua, edukiontziaren identifikazioa, gorabeherak eta abar.

Kontratuaren eta zerbitzuaren jarraipena eta kontrola hobetzeko beharrezkotzat jotzen bada, Mankomunitateak aldatu ahal izango du bilketei buruzko informazioaren edukia, formatua eta/edo bidaltzeko maiztasuna, eta adjudikaziodunak eskatzen zaion informazioa aurkeztu beharko du.

Edukiontzietan egon daitezkeen matxurak edo bestelako gorabehera larriak, zerbitzua eman bitartean gertatutakoak, berehala jakinaraziko zaizkie Mankomunitateko zerbitzu teknikoei.

Hil bakoitzaren lehenengo 5 egunetan, adjudikaziodunak honako hauek entregatuko dizkio Mankomunitateari:

a) Bukatutako hilabete osoan, edukiontzi eta garbigune bakoitzean bildutako arropa zaharren kantitateak, kilogramotan.
b) Garbiketa eta mantentze lanen xehetasunak, baita hilabetean gertatutako gorabeherak ere.

Modu berean, Debabarrenako Mankomunitateak aginduta, adjudikaziodunak zerbitzuarekin zerikusia duten txosten eta azterlan guztiak egin beharko ditu.

Gainera, kontratistaren eta Mankomunitateko zerbitzu teknikoen artean une oro komunikazio sistema arina eta eraginkorra ziurtatzeko bitartekoak eduki beharko ditu adjudikaziodunak (telefono finkoa, telefono mugikorra, faxa, posta elektronikoa eta abar).

Kontratistak edozein unetan Debabarrenako Mankomunitateak eskatzen dizkion dokumentuak eta, bereziki, gizarte segurantzari, laneko arriskuaren prebentzioari, lan istripuei, aseguru polizei, instalazioei eta materialari dagozkionak erakutsiko ditu. Oro har, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzaile saihestera bideratutako jarduerak ahalbidetuko ditu.

12.2. Seihilekoko adierazpena

Sei hilean behin, adjudikaziodunak enpresako arduradun batek sinatutako ziurtagiri bat aurkeztuko du; horren bidez, kontratu hau betez kudeatutako materialen irislekua adieraziko du.

Hain zuzen ere, bukatutako seihilekoan bildutako kantitate osoa, kilogramotan, banakatu egingo da, gutxienez xehetasun hauek emanda:

1. Material motak:

   - Berrerabiltzera bideratutakoak: Arropa zaharrak, etxeko arropa, oinetakoak, osagarriak eta ehunak, oro har, eta berriz erabiltzekoak, oro har.
   - Birziklapenera edo balorizazio energetikora bideratutakoak: Berriz erabili ezin diren ehunak, papera eta kartoia, plastikoa eta abar.
   - Botatzera bideratutako errefusa.

2. Material mota eta hartzaile bakoitzari buruz eman behar den informazioa:

   - Hartzailearen sozietate izena: adjudikaziodunak banaketarako edo salmentarako duen instalazioa, elkartea, gobernuz kanpoko erakundea, antolakundea, enpresa, hondakinen kudeatzailea, kudeaketa sistema integratua eta abar.
   - Helmugako instalazioaren identifikazioa eta helbidea: banaketa instalazioa, saltokia, industriagunea, hondakinak kudeatzeko gunea, hondakinak transferitzeko gunea, zabortegia eta abar.
   - Materialaren helburua helmugako gunean: behar dutenei doan ematea, jendeari saltzea, produktuak ekoiztea (zehaztu produktu mota), erregai gisa erabiltzea, zabortegira botatzea eta beste.

- Hartzaile bakoitzari seihilekoan bidalitako kantitateak, kilogramotan.
- Debabarrenako Mankomunitatearen zerbitzuan bildutako materialen kantitatea eta bere instalazioetan tratatzen diren gainerako materialen kantitatea bereizi ezin badira, adjudikaziodunak kantitate zenbatetsiak adieraziko du, zenbatesterakoan erabilitako irizpidea adierazpenean aipatuta.

Seihilekoko adierazpenarekin batera, adjudikaziodunak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak aurkeztuko ditu, adierazpenean agertzen diren emaitzak eta materialen trazabilitatea justifikatu edo hobeto deskribatzeko, hala nola materialen entrega agiriak albaranak, fakturak, kontrol dokumentuak edo DSC, garraio gutunak eta abar), txostenak, argazkiak eta abar.

Lizitatzaileek proposatzen duten informazioaren banakapen maila zehaztuko dute eskaintzetan, baita Debabarrenako Mankomunitateari dagozkion kantitateak zehazteko edo zenbatesteko metodo bat eta seihilekoko adierazpenarekin batera aurkeztuko duten dokumentazio osagarria ere. 2. eranskinean aipatu da aurkeztu behar den gutxieneko informazioa.

Balorazio ona jasoko dute ezarritako gutxieneko maila baino banakapen zehatzagoa egiteko proposamenek, Debabarrenako Mankomunitatearen kantitateak zehaztu edo zenbatesteko proposatutako metodoaren fidagarritasun eta adierazgarritasunak (ezaugarriak ezartzea, zeharkako zenbatespenak eta abar), baita Mankomunitateari materialen kudeaketaren emaitzei, trazabilitateari eta benetako berrerabiltze mailari buruzko informazio hobea emango dion dokumentazio osagarriak ere.

Zerbitzuaren jarraipen hobea egiteko beharrezkotzat jotzen bada, Mankomunitateak aldatu ahal izango du seihilekoko txostenean eskatzen den informazioaren edukia eta/edo formatua, eta adjudikaziodunak eskatzen zaion informazioa eman beharko du.

Mankomunitateak eskubidea izango du kontratistak seihilekoko txostenaren bidez aurkeztutako informazioa egiaztatzeko, eta dagokion Ingurumen Organoak baimendutako kudeatzailearen jardueraren jarraipenari buruz emango dion informazioarekin konparatzeko. Arropa zaharren kudeaketan antzemandako jardunbide desegokiak kontratu hau suntsiarazteko arrazoia izango dira.

13. BESTE BATZUEK JASAN DITZAKETEN KALTEAK

Kontratua gauzatzean behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galeren arduraduna adjudikazioduna izango da (trafiko istripuak, haizeak edukiontziak mugitzea eta abarrak). Hori dela eta, lanaren, segurtasun eta higienearen eta ibilgailuen trafikoaren eremuan indarreko antolamenduak eskatzen dituen aseguruak alde batera utzita edo horiekiko osagarriak, eskaintzaileek beren eskaintzetan aseguru polizen proiektuak aurkeztu beharko dituzte eta berariaz aipatuko dira arriskuen estaldurak, primak, kalte ordainak eta gainerako alderdiak, zerbitzuaren gorabeherei aurre egiteko sartu behar badira. Ildo horri jarraiki, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzaile saihestuko da.

14. ZERBITZUARI LOTUTAKO BESTE GAI BATZUK

Deskuidu edo arduragabekeria baten ondorioz, objektu pertsonalen bat –giltzak, diru-zorroa, erlojua, bitxiak, dokumenturen bat eta abar– nahi gabe edukiontzietara erortzen bada, oraindik barruan dagoela jakinda, adjudikaziodunak ahalik eta laguntza handiena eskainiko du objektu hori berreskuratzeko, Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoak agindutako moduan.

15. ESKAINTZAN ZEHAZTU BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK: TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako eskaintza bakoitzak nahitaez bete behar dituen gutxieneko zehaztapen teknikoak jarraian zehaztuko dira, dagozkien ataletan:

15.1. Zerbitzua Kudeatzeko Proiektua

Lizitatzaileek zerbitzua kudeatzeko proposamen eraginkorrena aurkeztuko dute eskaintzan. Proposamenak derrigorrez jaso beharko du Txosten Teknikoa, edukiontzietan uzten den arropa gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak antolatu eta emateko proiektuaren xehetasun guztiekin; halaber, eskaintzaileak ezarri dituen gizarte- eta ingurumen-politikak aipatuko dira.

Txosten teknikoak honako eduki hau izango du, gutxienez eta derrigorrez:

- Bilketa zerbitzuaren dimentsioak eta justifikazioa: Arropa edukiontzietatik biltzeko jardueraren planifikazioa; Bilduko diren kantitateak zenbatestea; Jarraitu beharreko ibilbideak, zenbat kilometro egin behar diren aurreikustea; Astean zenbat aldiz egingo den bilketa. Egutegia eta ordutegiak; hasteko ordua eta aurreikusitako amaitzeko ordua. Informazio hori astelehenetik igandera bitarteko aste arrunt bat aintzat hartuta eman behar da.
- Pisaketa eta kontrola egiteko sistematika: Bilketarako ibilgailuak pisatu beharko du bildutako materiala, baskula propio ziurtatuan zein Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek agindutako beste edozein baskulatan. Eskaintzan pisua neurtzeko erabili nahi den (diren) baskula(k) zehaztuko da (dira).
- Biltzeko prozedura eta sistema. Bildutako materialak karga kaxan sailkatzea. Tarteko pisaketak, proposatutako baskulak. Aurreikusitako deskargak. Edukiontzien betetze maila kontrolatzeko prozedurak.
- Zerrendatu bilketan eta garraioan erabili nahi diren baliabide materialak eta giza baliabideak. Ibilgailuak. Ibilgailuen bilketarako egokitasuna. Edukiera / karga erabilgarria. Ibilgailuen adinak. Lantaldeen osaera.
- Bildutako materiala kudeatzeko moduaren deskribapen zehatza: Helmuga eta tratamendua: Tratamendua egiteko proposatutako gunea. Gunearen kokapena. Prozedurak. Ekipamenduak eta baliabide materialak. Bildutako materialak sailkatzeko kategoriak edo hondakin motak. Berrerabiltzera, birziklatzera, balorizazio energetikora eta botatzera bideratuko duten gutxi gorabeherako portzentajeak adierazita.

  Garbitzea, konpontzea eta berrerabiltzeko bestelako prestaketak:

1. berrerabil daitezkeen objektu edo produktuak banatu, doan eman edo saltzeko proposatzen diren bideak,
2. banaketa zirkuituen kokapena, helmugako erakundeen izena aipatuta,
3. prozesu osoaren trazabilitatea, azken helmugetaraino.
4. banaketa bide bakoitzera bideratu nahi diren objektu edo produktu berrerabilgarrien gutxi gorabeherako proportzioa, zenbatespenaren arabera.

Bildutako materialen artean aurkitu diren eta berrerabili ezin diren hondakinak kudeatzeko proposamena:

- berriz erabili ezin diren ehunak,
- hondakin horien kudeaketaren trazabilitatea,
- helmugako erakundeen sozietate izena eta kokapena.

- Edukiontzien garbiketa eta mantentze lanak: Edukiontziak garbitu eta mantentzeko lanak egiteko prozedurak: Produktuak. Lantaldeen osaera. (*Garbitzeko maiztasuna eskaintza ekonomikoarekin batera adieraziko da, EZ TXOSTEN TEKNIKO HONETAN*)
- Edukiontzien garbitasun eta mantentze maila kontrolatzeko prozedurak.
- Matxuretan jarduteko prozedura, arropa bildu eta garraiatzeko erabili ohi den ibilgailuaren ordez beste bat erabili behar denean (larrialdiko telefonoak, harremanetarako pertsonak).
- Seihilekoko adierazpena. Informazioaren banakapen maila. Seihilekoko adierazpenarekin batera zer dokumentazio osagarri aurkeztea proposatzen den.
- Enpresan ezarritako ingurumen kudeaketa sistemen egiaztapen ofizialak, agindutakoak (ISO 14.000, EMAS edo baliokideak).
- Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak.

Edukien zerrenda ez da mugatzailea, eta Mankomunitateko zerbitzu teknikoek zabal dezakete, zerbitzua hobeto zehazteko balioko duela uste badute.

15.2. Zerbitzuari lotutako baliabide materialak eta giza baliabideak

- Enpresa lizitatzaileek derrigorrez aurkeztu beharko dute kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez betetzeko behar diren langileen proposamena, baita langileak ordezkatzeko plan bat ere, honako kasu hauek kontuan hartzen dituena: gaixotasun bajak, baimenak, oporrak eta bestelako arrazoiak, egoera horiek kontratatutako zerbitzua behar bezala betetzeko oztoporik sor ez dezaten.
- Zerbitzuburu eta arduradun goren modura kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen pertsona azalduko da. Aipatu pertsonak zuzeneko harremana izango du Mankomunitatearekin. Proposatutako pertsonaren curriculuma entregatuko da.
- Komunikazio sistema zehaztuko da (telefono finkoa, mugikorra edo antzekoa), Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek edozein unetan kontratistarekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.

- Langileei dagokienez, lizitatzaileek honako alde hauek azalduko dituzte eskaintzetan:

    1. Prestakuntza maila.
    2. Esleitutako zereginak.
    3. Lanean emango duten denbora.
    4. Ordainsari maila.
    5. Kontratazio mota eta kontratuaren iraupena.
    6. Urteko unitateko kostua eta denbora unitatearen araberako kostua.

- Lizitatzaileek zerbitzuak ondo kudeatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak aipatuko dituzte eskaintzetan. Baliabide material horiek une oro bermatuko dute zerbitzua ematea, lan plana garaiz burutzeko eta sor daitezkeen ustekabeko egoerak konpontzeko tarte nahikoa utziz.

- Lizitatzaileek bilketarako erabiliko dituzten ibilgailuak deskribatuko dituzte eskaintzetan, baita materialak bildu, bilketarako, garraiatzeko eta instalazioan deskargatzeko ibilgailuan kargatu eta, hala badagokio, sailkatu eta trinkotzeko proposatzen den prozedura ere. Material higikor guztia, berariazko makinak eta tresnak zehatz-mehatz deskribatu beharko dira: ezaugarri teknikoak, ekipamenduak, antzinatasuna eta abar adierazita, eta elementu horiek ahalik eta ondoen ezagutzeko beharrezkotzat jotzen diren plano, krokis, eskema, argazki eta datu guztiak emanda.

- Lizitatzaileek erraztasunak emango dituzte hondakinak ekoitzi eta kudeatzeko erregistroan hondakin ez-arriskutsuen garraiolari gisa izena emateko, eraman ditzaketen hondakinen EHZ kodea adierazita.

15.3. Materialen kudeaketa

- Eskaintzetan xehetasunez deskribatuko dira bildutako materialak eramateko kudeaketa guneak eta prozesuak (hustuketa, hautaketa, higienizatzea, lisaketa, sailkapena eta abar), baita masen balantzea ere, kudeaketa modu bakoitzera bideratu nahi diren guztizko kantitateen portzentajea adierazita. Era berean, sailkapen eta kudeaketa gunean erabiliko diren makinak eta instalazioak deskribatuko dira.

- Lizitatzaileek erraztu egingo dute planta hondakin ez-arriskutsuen tratamenduaren kudeatzaile gisa baimentzea, NIMA kodea eta kudea ditzaketen hondakinen EHZ kodea adierazita.

- Materialen zati bat soltean saltzera bideratzeko asmoa izanez gero, lizitatzaileek zehaztu beharko dituzte materiala erosiko duten enpresak eta ehun hondakinei emango zaien tratamendua edo helburua.

- Lizitatzaileek proposatzen duten informazioaren banakapen maila zehaztuko dute eskaintzetan, baita Debabarrenako Mankomunitateari dagozkion kantitateak zehazteko edo zenbatesteko metodo bat, eta horren fidagarritasuna eta adierazgarritasuna ere (ezaugarriak ezartzea, zeharkako zenbatespenak eta beste). Mankomunitateari materialen kudeaketaren emaitzei, trazabilitateari eta benetako berrerabiltze mailari buruzko informazio hobea emango dion dokumentazio osagarria, lizitatzaileak proposatzen duena.

15.4. Edukiontzien mantentzea

- Eskaintzek edukiontziak mantentzeko bideratuko diren baliabide materialak eta giza baliabideak zehaztuko dituzte:
    1. Prebentziozko mantentzearen eta mantentze zuzentzailearen sistema, edukiontziak matxurak, mailatuak, berriz margotu beharra eta antzeko gertakarien ostean konpontzeko.
    2. Edukiontzi guztiak garbitzeko sistema eta metodologia (*Ez maiztasuna*), beren itxura eta erabilgarritasun maila onena izatea une oro bermatzeko.

15.5. Lan arriskuen prebentzioa

- Prebentzioari dagokionez, Lan Arriskuen Prebentzioaren Legean eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legedian xedatutako betebehar guztiak betetzeko ezarrita duten modalitatea zehaztuko dute enpresa lizitatzaileek. Ondorioz, adjudikaziodunaren betebeharra izango da:
    1. Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
    2. Lan arriskuak ebaluatzea.
    3. Arrisku ebaluazioaren emaitzak oinarri hartuta, prebentzio ekintzak planifikatzea.
    4. Lanerako baliabideek langileek segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.
    5. Langileek egin behar duten lanaren araberako babes neurriak ematea, arriskuak saihestu edo behar bezala mugatu ezin direnean.
    6. Langileei informazio egokia ematea, dauden arriskuak, aplikatu beharreko babes neurriak eta jokabideak eta ezarritako larrialdiko neurriak azalduz.
    7. Langile bakoitzak prebentzioaren arloko prestakuntza egokia jaso duela bermatzea.
    8. Langileen osasuna aldizka-aldizka kontrolatzen dela bermatzea.

  Gainera, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko 171/2004 Errege Dekretua betetze aldera, Mankomunitateak eskatzen dion dokumentazio osoa aurkeztuko du adjudikaziodunak, adjudikazioari buruzko jakinarazpena jaso ondoren eta kontratua sinatu aurretik.

15.6. Aseguru poliza

Lanaren, segurtasun eta higienearen eta ibilgailuen trafikoaren eremuan indarreko antolamenduak eskatzen dituen aseguruak alde batera utzita edo horiekiko osagarriak, eskaintzaileek beren eskaintzetan aseguru polizen proiektuak aurkeztu beharko dituzte eta berariaz aipatuko dira arriskuen estaldurak, primak, kalte ordainak eta gainerako alderdiak, zerbitzuaren gorabeherei aurre egiteko sartu behar badira. Ildo horri jarraiki, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzaile saihestuko da.

<u>Baldintza teknikoei lotutako gutun azalean ezin dira agertu formulak aplikatuz ebaluatzen diren ezaugarri teknikoak, hala nola:</u>

- **Eskaintza ekonomikoa.**

Goian aipatutako datuei dagokienez, ezin da datu kuantitatiborik aipatu, ezta aipatutako ezaugarriak ondorioztatzeko aukera ematen duten planoak edo bestelako informazioak eman ere.

16. <u>ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK</u>

16.1. Formula bat aplikatuz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak (irizpide automatikoak). Gehienez ere 75 puntu, 2. GUTUN AZALA

16.1.1. <u>Eskaintza ekonomikoa:</u> <u>kontzeptu honetan, **gehienez ere 75 puntu** emango dira</u>

Puntuak banatzeko formulan, "i" eskaintza bakoitzean baloratu beharko eskaintza ekonomiko moduan, lizitatzaile bakoitzak kontratuaren xedea den zerbitzua urtebetez emateagatik proposatzen duen prezioa (BEZa barne) hartuko da.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez eta onartutako horien arabera kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa: 75 puntu) eta P2 (Zero beherapena, gutxieneko puntuazioa), eta puntu horiek zuzen horretan mugatzen duten tartearen barruan. Aipatutako puntuak hauek dira:

P1 – Eskaintza ekonomikoenari dagokiona (Gehieneko beherapena); gehieneko puntuazioa esleituko zaio (75 puntu).

P2 – Lizitazio motari dagokiona; dagokion gutxieneko puntuazioa esleituko zaio, honako formula honen arabera:

$$Pmin = 75 \times (1 - (3 \times Bmax))$$

(Bmax = Gehieneko beherapena)

Pmin kalkulaturik lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da, Pmin=0.

Gainerako beherapenei, Bi, "i" eskaintza bakoitzari dagozkionei, interpolazio lineala erabilita, abzisen ardatzean, P1 eta P2 puntuen artean, ordenatuen ardatzean dagozkien puntuak esleituko zaizkie.

Beherapena (Bi) zatiketa baten emaitza da, non zatikizuna honako hauen arteko diferentzia den: batetik, oinarrizko lizitazio prezioa (urtebetekoa), BEZa barne, kontratuaren xedea den zerbitzua emateagatik; eta bestetik, "i" eskaintzaren prezioa (urtebetekoa), BEZa barne; bestalde, zatiketaren zatitzailea oinarrizko lizitazio prezioa da (urtebetekoa), BEZa barne.

Bi = (Lizitazioaren oinarrizko prezioa – "i" eskaintzaren prezioa) / Lizitazioaren oinarrizko prezioa

Aurrerago definitutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartu diren oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintza ekonomikoak

Izan ere, "i" proposamen ekonomiko bat baxuegia dela eta, ondorioz, proposamen ekonomiko anormala edo neurriz kanpokoa dela esango da, eskaintza horri dagokion "i" beherapenak (Bi) lehiaketan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena 10 puntu portzentualetan gainditzen duenean, non "i" horrek 1etik "n"-ra arteko balioak hartzen dituen, eta "n" baloratzeko onartu diren eskaintzen kopurua den".

Eskaintza batean edo batzuetan hasiera batean neurriz kanpoko beherapena antzematen bada, baina aztertu ondoren eskainitako prezioak proiektua burutzeko egokiak direla ulertzen bada, neurriz kanpoko beherapena dagoela pentsarazi duen desbideraketa behar bezala justifikatzen baita, proposamen horiek baliagarritzat joko dira eta onartuko dira, eta azken eskaintza ekonomikoenari (gehieneko beherapen berria) dagokiona birkalkulatuko da P1 puntu gisa; gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 75 puntu.

16.2. Balio judizio baten ondorioz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak: gehienez ere 25 puntu, 1. GUTUN AZALA

Jarraian azaltzen diren irizpideetan, kontuan izango da lizitatzaileek idatzitako TXOSTEN TEKNIKOAREN kalitatea eta ondorioak, kontratuaren xede diren lanak antolatzeko eta emateko moduari, eta zerbitzuaren errendimendu eta kalitate onena lortzea ahalbidetzen duten giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez; gehienez ere, 25 puntu emango dira.

16.2.1. Helmuga eta tratamendua. Gehienez, 10 puntu

Helmuga eta tratamendua. Bildutako materialak sailkatzeko proposatzen diren kategoriak edo zatikiak. Garbitzeko, konpontzeko edo berrerabiltzeko prestatzeko eragiketak egiteko modua. Berrerabiltzera, birziklatzera, balorizatzera eta ezabatzera bideratzea aurreikusten duten ehunekoak.

Kontzeptu horrengatik gehienez 10 puntu eman ahal izango dira.

16.2.2. Zerbitzuari lotutako baliabide materialak. Gehienez, 4 puntu

Bilketa, garraio eta mantentze lanetarako erabiliko diren lantaldeak, ibilgailuei eta materialei dagokienez. Erabiliko diren ibilgailuen kalitate, edukiera eta ezaugarri teknikoak.

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 4 puntu eman ahal izango dira.

16.2.3. Zerbitzuari lotutako giza baliabideak. Gehienez, 4 puntu

Zerbitzua emateko bideratuko diren giza baliabideak baloratuko dira. Lan egutegia eta ordutegia. Laguntza taldeak egoteko aukera eta lanaldiak zabaltzeko aukera, zerbitzua larunbat, igande eta jaiegunetan ere emateko, baita larrialdietan jarduteko aukera ere. Langileak ordezkatzeko plana, aldi baterako ezintasuna, absentismoa, istripuak, baimenak eta oporrak bezalako egoeretan.

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 4 puntu eman ahal izango dira.

16.2.4. Edukiontziak konpontzeko mantentze lanak –prebentziozkoak zein zuzentzaileak– egiteko plana. Gehienez, 2 puntu

Mantentze lanak –prebentziozkoak zein zuzentzaileak– egiteko proposatzen den plana baloratuko da, edukiontziak matxurak, mailatuak, berriz margotu beharra eta antzeko gertakarien ostean konpontzeko.

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 2 puntu eman ahal izango dira.

16.2.5. Edukiontziak garbitzeko erabiliko diren baliabideak. Gehienez, 2 puntu

Erabiliko den garbiketa ekipamendua baloratuko da: ibilgailuak zein langileak. Erabili nahi diren produktuak (detergenteak, koipegabetzaileak, absorbatzaileak...). Edukiontziak eta ingurua proposatutako baliabideak erabiliz garbitzeko modua. (EZIN DA Txosten Teknikoan agertu edukiontziak garbitzeko maiztasuna).

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 2 puntu eman ahal izango dira.

16.2.6. <u>Proposa daitezkeen hobekuntzak.</u> <u>Gehienez, 3 puntu</u>

- Arropa zaharrekin batera, <u>objektu berrerabilgarri txikien gaikako bilketa</u>: Hobekuntza gisa baloratuko da arropa zaharren bilketaz gain, berrerabil daitezkeen objektu txikiak ere biltzeko proposamena, hala nola liburuak, jostailuak, aparatu elektriko eta elektronikoak, bitxiak, bazarreko gauzak eta, oro har, ondo dauden eta ondo funtzionatzen duten objektu guztiak, berrerabil daitezkeenak, beharrezkoa bada, garbitu, konpondu edo egokitu ondoren. Zerbitzuaren hobekuntzak tamaina txikiko objektuak bakarrik hartuko ditu kontuan, edukiontziaren ahoaren zabalera faktore mugatzailea delako.

  Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere puntu 1 eman ahal izango da.

- <u>Bilketa zerbitzuaren digitalizazioa</u>: honako hauek ahalbidetzen duten sistemak ezartzea:

  Datuak kudeatzeko webgunerako sarbidea.

  Edukiontzien geolokalizazioa.

  Edukiontzietan instalatutako sentsoreei esker, betetze maila ezagutzea.

  Ibilbideak optimizatzea, kamioian instalatutako identifikaziorako sistemaren eta ibilbide dinamiko optimizatuaren teknologia duen GPSaren bidez.

  Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 2 puntu eman ahal izango da.

<u>Berdinketa ebazteko irizpideak</u>

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio neurrien bidez langile gehien duena.

- Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.

- Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresaren alde ebatziko da.

- Hala ere, ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpideak aplikatzeak berdinketa hautsi ez badu.

17. INFORMAZIO OSAGARRIA

17.1. Formulen hautaketa justifikatzea:

17.1.1. Zerbitzuaren prezioa, eskaintzan adierazitakoa

Puntuak interpolazio linealaren bidez P1 eta P2 puntuen artean banatzen dituen formula, non P2 lizitazio prezioaren antzekoa den eta P2=75 x (1–(3 x gehieneko beherapena)) legokiokeen; P1, aldiz, eskaintza ekonomikoena da, hau da, beherapen handiena proposatzen duena, eta horri 75,00 puntu emango zaio. Tarteko eskaintzei puntu bien arteko interpolazio lineala aplikatuz esleitzen zaizkie puntuak, abzisa ardatzean eskaintza bakoitzaren beherapenen balioak eta ordenatuen ardatzean eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak jarrita.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari kontzeptu horrengatik eslei daitezkeen puntu guztiak esleitzen dizkio, eta lizitazio prezioari honako hauek: gehieneko puntuazioa (1 – 3 x gehieneko beherapena) faktoreaz biderkatuz lortutako puntuak, gehieneko beherapena bateko hainbestean adierazita.

Ondorioz, lizitatzaile batek zerbitzua lizitazio prezioaren truke ematea eskaintzen badu, puntu gutxiago jasoko du ahalegina egin duten eta lizitazioarena baino prezio baxuagoa proposatzen duten eskaintzaileek baino.

Gainera, lizitazio prezioa proposatzen duen eskaintza baten puntuazioa are txikiagoa izango da, eskaintza ekonomikoenaren beherapena kontuan hartuta; izan ere, nabarmen urrunduko da puntuak alderantzizko proportzionaltasunaren arauaren bidez banatzeko irizpidetik, esleitu beharreko puntuak interpolatzen diren zuzenaren malda nabarmen handiagoa baita zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomiko onena. Horrela saritzen da prezio txikiagoa eskaintzeko ahalegina; gainera, erabilitako formularen beste ezaugarri bat hauxe da: lizitatzaile desberdinek antzeko beherapenak eskaintzen badituzte, formulak antzeko puntuazioak esleitzen dizkie.

18. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, aintzat hartu da jarraian azaltzen den kostuen banaketa, kostua osatzen duten sail desberdinen garrantzia honako hau izanik: Zuzeneko langileen gastua: % 40; zeharkako langileen kostua: % 13; horniduren kostua: % 5; finantza gastua: % 5; ibilgetuaren amortizazioa: % 25; gastu orokorrak: % 6; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 70 dira, zeharkako gastuak % 18 eta beste gastu batzuk % 12.

Arropa zaharrak biltzeko zerbitzuaren kostuak kalkulatzea, kontratuaren iraupena aintzat hartuta								
Kostuen banakapena, kontzeptuen arabera	Kostuetan parte hartzearen %				Kostuetan parte hartzea, eurotan (BEZ kanpo)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, Zuzeneko eskulana	0,4				5.800,00	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, Zeharkako eskulana		0,13			0,00	1.885,00	0,00	0,00
Hornidurak	0,05				725,00	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioak		0,05			0,00	725,00	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0,25				3.625,00	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	870,00	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	870,00
GUZTIRA	0,7	0,18	0,06	0,06	10.150,00	2.610,00	870,00	870,00
	1,00				14.500,00			

19. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren xedea bere eraginpean egon daitezkeen ingurumen balioak mantendu edo hobetzea da; horretarako, hondakinak sortzea saihesten saiatuko da eta, hala badagokio, hondakin horiek honako lehentasun ordenari jarraikiz kudeatzea bultzatuko da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorazio energetikoa barne. Prozedura horiek ezin badira aplikatu, arrazoi tekniko edo ekonomikoak direla medio, hondakinak ingurumenean ondorioak saihesteko edo ahalik eta ondorio txikienak izateko moduan kenduko dira.

Hori adjudikaziodunak ziurtatuko du, ISO 14.001 ziurtagiriaren bidez edo proposatutako adjudikaziodunari dokumentazio errekerimendua betetzeko fasean eskatuko zaion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez. Kontratua gauzatzeko fasean, baldintza hori betetzen ote den egiaztatuko da.

1. ERANSKINA

1. ERANSKINA: KUDEATZEN DEN MATERIALAREN AZKEN HELMUGAREN ZIURTAGIRIA

……. NAN zk. duen …… jaunak/andreak, Debabarrenako Mankomunitatean arropa zaharrak eta bestelako ehunak biltzeko zerbitzua emango duen enpresa adjudikaziodunaren arduradun gisa,

ZIURTATZEN DUT:

Debabarrenako arropa edukiontzietan bildutako hondakinak honela bideratu direla:

Hondakin mota	Kg*	Berrerabiltzea Birziklatzea Balorizatzea Errefusa	Hartzailearen sozietate izena	Helmugako gunea eta helbidea	Azken helburua (doan ematea, jendeari saltzea…)	Beste gai batzuk

*Debabarrenako Mankomunitatearen zerbitzuan bildutako materialen kantitatea eta bere instalazioetan tratatzen diren gainerako materialen kantitatea bereizi ezin badira, adjudikaziodunak kantitate zenbatetsiak adieraziko du, zenbatesterakoan erabilitako irizpidea adierazpenean aipatuta.

Sin.